



# elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria  
Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunerako  
Euskal Fundazioa



# RASFF TXOSTENA

## ELIKAGAIAK

## ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

**2022ko HIRUGARREN LAUHILEKOA**


### JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2022ko hirugarren lauhilekoan elikagaiei buruzko 1301 jakinarazpen izan dira. Horietatik 384 alertak izan dira (%29,5), 491 informazio-jakinazpenak (%37,5) eta 426 mugan egin diren ukapenak (%33).



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 33a Turkiakoak eta Indiakoak, % 18,5. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea Polonia izan da, % 16,5arekin. Afrikaren kasuan, Nigeriak, jakinarazpenen %29a izan ditu. Azkenik, Amerikaren kasuan EEBBek %42,5arekin da jakinarazpen gehien sortu dutenek.

### KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2022ko hirugarren lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) elikagaien 1301 alerta eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

| Kutsadura iturria                    | %      |
|--------------------------------------|--------|
| Kutsadura biologikoa                 | % 29   |
| Iruzurrak                            | % 21   |
| Hondakinak                           | % 19   |
| Mikotoxinak/toxina naturalak         | % 12,5 |
| Kutsadura kimikoa                    | % 6,5  |
| Produktuaren egoera higieniko txarra | % 4    |
| Kutsadura fisikoa                    | % 4    |
| Metal astunak                        | % 3,5  |
| Bestelakoak                          |        |



### KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 56an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 31a eragin du. Kasu gehienetan (% 40a) **EEBB** zuten jatorria

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %64,5a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 78an. **SESAMOA** izan da produktu protagonista %39,5eko kasuetan, %60ko kasuetan **NIGERIA** jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, %14,5a *Salmonella enteritidis* dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 88a eta % 73ko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta %7,5a *Salmonella typhimuriumi*, kasu honetan **HEGAZTIAK** protagonista direlarik (%50a) eta europarrak (%100).

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenes* bakteriak jakinarazpenen %13,5a eragin ditu, **gehien bat izokina eta produktu ketuetan..**

Hondakinei dagokionez, **PESTIZIDAK** %95a dira, %a. Pestiziden kasuan, **KLORPIRIFOS** da protagonista nagusia %29an, gehien bat **ZITRIKOetan, eta PIPERRETAN.**

Jasotako iruzurru guztien artean, **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOEK 42%ak** , suposatu dute.

